Pasaiako Udala
Zk./ Nº 2024/1200
Data / Fecha 2024/05/29
Dekretua / Decreto

## ALKATETZA DEKRETUA

### - Iruzurraren Aurkako Batzordearen eraketa -

### AURREKARIAK

**Lehenengoa**.- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (BEEP) Europar Batasunak sustatutako tresna bat da, COVID-19 pandemiaren eragina arintzeko, gizartea eraldatuz ekoizpen-sarea modernizatzeko, "deskarbonizazioa" eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko, ikerketara eta prestakuntzara bideratutako egituren eta baliabideen digitalizazioa eta hobekuntza sustatzeko eta, azken batean, gizarteak pandemiaren moduko arazoei erantzuteko gaitasun handiagoa lortzeko.

Horretarako, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) ezartzen duenak, 22. artikuluan zenbait neurri ezartzen dizkie BEM betearaziko duten estatu kideei, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokionez, eta laguntzen azken onuradun diren pertsonak eta erakundeak identifikatzeari dagokionez, baita enpresa kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari dagokionez ere.

Aurrekoa betez, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duenak, 6. artikuluan ezartzen duenez, BEEPren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde betearazle orok "Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan" bat izan behar du, dagokion jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabiltzen direla bermatu eta aitortzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, antzeman eta zuzentzeari dagokionez.

## DECRETO DE ALCALDÍA

### - Creación del Comité Antifraude -

### ANTECEDENTES DE HECHO

**Primero**.- El Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) es un instrumento promovido por la Unión Europea para mitigar el impacto de la pandemia COVID-19, transformando la sociedad con el objetivo de modernizar el tejido productivo, impulsar la “descarbonización” y el respeto al medio ambiente, fomentar la digitalización y la mejora de las estructuras y recursos destinados a la investigación y a la formación y conseguir, en definitiva, una mayor capacidad de la sociedad a la hora de dar respuesta a problemas como el de la pandemia.

Para ello, el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (en adelante MMR), establece en su artículo 22 una serie de medidas a los Estados miembros que vayan a ejecutar el MMR, en particular en lo que se refiere a la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses y a la identificación de las personas y entidades beneficiarias últimas de las ayudas, así como de las empresas contratistas y subcontratistas.

En cumplimiento de lo anterior, el artículo 6 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, conforme al marco establecido en el Reglamento (UE) 2021/241, establece a toda entidad ejecutora que participe en la ejecución de las medidas del PRTR la obligación de disponer de un “Plan de Medidas Antifraude” que le permita garantizar y declarar que, en su respectivo ámbito de actuación, los fondos correspondientes se utilizan de conformidad con las normas aplicables, en particular, en materia de prevención, detección y corrección de fraude, corrupción y conflictos de intereses.

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

Pasaiako Udalak Iruzurraren Aurkako Neurrien Plana onartu zuen 2022ko irailaren 27ko osoko bilkuran. Plan honek barne hartzen dituen neurrien artean, 11. puntuak iruzurra gainbegiratzeko organo bat izendatzeko konpromisoa hartzen du, iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzeaz arduratuko dena. Era berean, organoaren osaera eta funtzionamendu arauak alkate ebazpenaren bidez onartuko direla adierazten da.

**Bigarrena**.- 2024/05/28an, Pasaiako Udaleko Idazkariak ebazpen-proposamena egin zuen, honako hau proposatuz:

- Pasaiako Udaleko Iruzurraren Aurkako Batzordearen eraketa onartzea.
- Honako kargu hauek betetzen dituzten pertsonak batzordeko kide izendatzea:
    - Udal idazkaria, lehendakari funtzioak beteko dituena.
    - Udal kontuhartzailea.
    - Kontratazio eta Ondareko teknikaria.
    - Antolaketa eta Giza Baliabideetako teknikaria.
    - Batzordearen idazkaria, lehendakariak izendatutako Administrazio Orokorreko Teknikaria.
- Pasaiako Udaleko Iruzurraren Aurkako Batzordearen funtzionamendu arauak onartzea, ebazpen proposamenaren I. Eranskinean erantsita daudenak.

Pasaiako Udaleko Idazkariak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan aipatzen den autoantolaketa-ahalaren esparruan, eta 21.1.r) y s) artikuluak esleitutako eskumenekin bat etorriz,

El Ayuntamiento de Pasaia aprobó el Plan de Medidas Antifraude en sesión plenaria de fecha 27 de septiembre de 2022. Dentro de las medidas que incluye este Plan, el punto 11 incluye el compromiso de designar un órgano de control de fraude encargado de la adecuada aplicación de las medidas antifraude. Asimismo, se establece que la designación de sus integrantes y las normas de funcionamiento se aprobarán por decreto de alcaldía.

**Segundo**.- El 28/05/2024 la Secretaria del Ayuntamiento de Pasaia emitió propuesta de resolución, proponiendo:

- Aprobar la constitución del Comité Antifraude del Ayuntamiento de Pasaia.
- Designar las personas que ostenten los siguientes cargos como miembros del comité:
    - Secretaria municipal, que actuará como presidenta del órgano.
    - Interventora municipal.
    - Técnico de Contratación y Patrimonio.
    - Técnica de Organización y Recursos Humanos.
    - Como secretario del órgano, el técnico de Administración General nombrado por la presidenta del comité.
- Aprobar las normas de funcionamiento del Comité Antifraude del Ayuntamiento de Pasaia contenidas en el Anexo I de la citada propuesta de resolución

En base a la propuesta de resolución emitida por la Secretaria del Ayuntamiento de Pasaia, en el ejercicio de la potestad de autoorganización reconocido en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y en ejercicio de las competencias reconocidas por los apartados r) y ) del artículo 21.1,

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

**ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.-** Pasaiako Udaleko Iruzurraren Aurkako Batzordearen eraketa onartzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketatik eratorritako iruzurraren aurkako borrokaren arloko legezko betebeharrak betetzeko.

**Bigarrena.-** Honako kargu hauek betetzen dituzten pertsonak batzordeko kide izendatzea:

- Udal idazkaria, lehendakari funtzioak beteko dituena.
- Udal kontuhartzailea.
- Kontratazio eta Ondareko teknikaria.
- Antolaketa eta Giza Baliabideetako teknikaria.

Batzordearen idazkaria, lehendakariak izendatutako Administrazio Orokorreko Teknikaria izango da.

**Hirugarrena.-** Pasaiako Udaleko Iruzurraren Aurkako Batzordearen funtzionamendu arauak onartzea (I eranskina).

**Laugarrena.-** Izendatutako pertsonei ebazpena jakinaraztea.

**Bosgarrena.-** Ebazpen hau udalaren egoitza elektronikoan eta intranetean argitaratu dadila agintzea.

**RESUELVO**

**Primero.-** Aprobar la constitución del Comité Antifraude del Ayuntamiento de Pasaia con objeto de dar cumplimiento a las obligaciones legales en materia de lucha contra el fraude derivadas de la gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

**Segundo.-** Designar las personas que ostenten los siguientes cargos como miembros del comité:

- Secretaria municipal, que actuará como presidenta del órgano.
- Interventora municipal.
- Técnico de Contratación y Patrimonio.
- Técnica de Organización y Recursos Humanos.

Se designa como secretario del órgano, el técnico de Administración General nombrado por la presidenta del comité.

**Tercero.-** Aprobar las normas de funcionamiento del Comité Antifraude del Ayuntamiento de Pasaia (anexo I).

**Cuarto.-** Notificar la presente resolución a las personas designadas.

**Quinto.-** Ordenar la publicación de la presente resolución en la sede electrónica e intranet municipal.

**TEO ALBERRO BILBAO**
- Alkatea -

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

## I ERANSKINA – ANEXO I

**IRUZURRAREN AURKAKO BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK**

### 1.- Xedea eta izaera

1.- Iruzurraren Aurkako Batzordearen ardura da iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzea, prebentzioaren, detekzioaren, zuzenketaren eta jazarpenaren arloan.

2.- Iruzurraren Aurkako Batzordea diziplina anitzeko kide anitzeko organoa da, eta SEMaren funtsen kudeaketan edota betearazpenean inplikatutako unitate, sail, zerbitzu edo arloetako kideek osatzen dute, bereziki prozesuaren fase hauetan:

- Kontratazio-prozedurak.
- Dirulaguntzen prozedurak.
- Dokumentuak egiaztatzeari eta egiaztapen materialari buruzkoak.
- Ordainketak baimentzea.
- Kontratazio- edota dirulaguntza-prozeduretan esku hartzen duten eragileen ondorengo kontrolak.

### 2..- Osaera

1.- Iruzurraren Aurkako Batzordea honako kargu hauek betetzen dituzten pertsonek osatuko dute:

- Udal idazkaria, lehendakari funtzioak beteko dituena.
- Udal kontuhartzailea.
- Kontratazio eta Ondareko teknikaria.
- Antolaketa eta Giza Baliabideetako teknikaria.

Batzordearen idazkaria, lehendakariak izendatutako Administrazio Orokorreko Teknikaria izango da.

**NORMAS DE FUNCIONAMIENTO DEL COMITÉ ANTIFRAUDE**

### 1.- Finalidad y naturaleza

1.- El Comité Antifraude es el órgano responsable de la adecuada aplicación de las medidas antifraude en materia de prevención, detección, corrección y persecución.

2.- El Comité Antifraude es un órgano colegiado multidisciplinar formado por personas integrantes de las diferentes unidades, departamentos, servicios o áreas implicadas en la gestión y/o ejecución de los fondos del MRR, en particular a las siguientes fases del proceso:

- Procedimientos de contratación.
- Procedimientos de subvenciones.
- Comprobaciones relativas a la verificación documental y material.
- Autorización de los pagos.
- Controles a posteriori de los agentes que intervengan en los procedimientos de contratación o de subvenciones.

### 2.- Composición

1.- El Comité Antifraude estará formado por cuatro vocales que serán las personas que ocupen los siguientes cargos:

- Secretaria municipal, que actuará como presidenta del órgano.
- Interventora municipal.
- Técnico de Contratación y Patrimonio.
- Técnica de Organización y Recursos Humanos.

Se designa como secretario del órgano, el técnico de Administración General nombrado por la presidenta del comité.

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

2.- Izendatutako kideez gain, aztertu beharreko gaien izaeraren arabera eta agindutako zereginak hobeto kudeatu ahal izateko, aldi baterako sartu ahal izango dira eragindako unitateetako kideak eta gaian adituak direnak.

2.- Al margen de los integrantes designados, dependiendo de la naturaleza de los asuntos que deban ser tratados, se podrán incorporar transitoriamente en su seno a miembros de las unidades que resultan afectadas, así como expertos en la materia, con la finalidad de llevar a cabo una mejor gestión de las tareas encomendadas.

### 3.- Abstentzioa eta errekusazioa

Batzordeko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta errekusazioari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

### 3.- Abstención y recusación

Serán de aplicación a las personas miembros del comité, las normas relativas a la abstención y recusación establecidas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

### 4.- Eginkizunak

1.- Iruzurraren Aurkako Batzordearen eskumenak honako hauek izango dira:

- Iruzurraren aurkako politikaren garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betearazpena zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Iruzurrezko ekintza eta jokabideen aurrean "zero tolerantzia" printzipioan oinarritutako prebentzio-kultura sustatzea.
- Arriskuen mapa egiteko lanak zuzentzea, baita zaintza- eta kontrol-planak eta -prozedurak ere.
- Udalaren barruan iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko arau eta barne-kontrol egokiak onartzea edota proposatzea.
- Detektatutako arriskuen eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko kontrolen aldizkako ebaluazioa egitea.
- Jasotako salaketak kudeatzea.
- Iruzurrezko jokabidea ekar dezakeen edozein gertakariri buruz egiten diren barne-ikerketak hastea eta zuzentzea, eta organo eskudunei dagozkien zehapenak ezartzea proposatzea.
- Beharrezkoa izanez gero, iruzurra,

### 4.- Funciones

1.- Serán competencias del Comité Antifraude las siguientes:

- Dirigir y supervisar el desarrollo, la implantación, el funcionamiento, la eficacia y el cumplimiento de la Política Antifraude.
- Promover una cultura preventiva basada en el principio de “tolerancia cero” hacia la comisión de actos y conductas fraudulentas.
- Dirigir la elaboración de un mapa de riesgos, así como los planes y procedimientos de vigilancia y control.
- Aprobar o proponer las normas y los controles internos adecuados para la prevención de la comisión de fraude, corrupción y soborno en el seno del Ayuntamiento.
- Realizar una evaluación periódica de los riesgos detectados y los controles aplicables a cada uno de ellos.
- Gestionar las denuncias recibidas.
- Incoar y dirigir las investigaciones internas que se realicen sobre cualquier hecho que pueda suponer una conducta fraudulenta, así como proponer a los órganos competentes la imposición de las sanciones oportunas.

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

ustelkeria eta interes-gatazkak salatzea Agintari eskudunei, Fiskaltzari eta/edo auzitegiei.

- Iruzurraren aurkako politikan komeni diren aldaketak proposatzea.

- Denunciar, en caso de ser necesario, a las Autoridades competentes, Ministerio Fiscal y/o Tribunales los casos de fraude, corrupción y la existencia de conflictos de intereses.
- Proponer las modificaciones de la Política Antifraude que resulten convenientes.

2.- Batzordeak hirugarrenen lankidetza eta aholkularitza eskatu ahal izango du bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duenean, eta ekimen-askatasuna izango du, ikerketa bat hasi ahal izateko aldez aurretik salaketarik edo nagusiren baten agindurik izan gabe, edozein arrazoirengatik egokitzat jotzen badu.

2.- El comité podrá solicitar la colaboración y asesoramiento de terceros cuando lo estime necesario o conveniente para la correcta realización de sus funciones y tendrá libertad de iniciativa, en el sentido de poder iniciar una investigación sin necesidad de que exista una denuncia previa o la orden de un superior, siempre que, por cualquier circunstancia lo considere conveniente.

3.- Horretarako, batzordeak udaleko sail eta prozesu bakoitzean bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango du, eskatutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

3.- A tal efecto, el comité podrá recabar cuanta información y documentación sea precisa para el cumplimiento de sus funciones de cada uno de los departamentos y procesos del Ayuntamiento, con independencia del nivel jerárquico de la persona requerida.

**5.- Funtzionamenduko barne- araubidea**

**5.- Régimen interno de funcionamiento**

1.- Iruzurraren Aurkako Batzordea lau hilean behin bilduko da, BEEPa indarrean dagoen bitartean.

1.- El Comité Antifraude se reunirá una vez cada cuatro meses, mientras se mantenga en vigencia el PRTR.

2.- Batzordeak ezohiko bilkura ospatu ahal izango du presazko izaerarekin, berehalako erabakia eskatzen duen gai bereziki garrantzitsu bat planteatzen denean.

2.- El comité se podrá reunir de manera extraordinaria con carácter de urgencia, cuando se plantee un asunto de especial relevancia, que requiera una decisión inmediata.

3.- Iruzurraren Aurkako Batzordearen bileren deialdia eta garapena, bai eta bileren akta ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

3.- La convocatoria y desarrollo de las reuniones del Comité Antifraude, así como el acta de sus sesiones se llevará a cabo conforme a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como al resto de disposiciones aplicables.

4.- Aurrekoa gorabehera, Iruzurraren Aurkako Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dituzte bilkuretako aktak, eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

4.- Sin perjuicio de lo anterior, las actas de las sesiones deberán estar firmadas por todos las personas que forman parte del Comité Antifraude que hayan asistido a dicha reunión y contener, al menos, lo siguiente:

ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5

- Gai-zerrenda.
- Iruzurraren Aurkako Neurrien Planean nabarmendutako gertaerak.
- Horri buruz hartutako erabakiak, hala badagokio.
- Izapidetzen ari diren SEMari buruzko kontratazio-espedienteen eta dirulaguntzen jarraipenaren emaitza.
- Hala dagokionean, iruzurraren, ustelkeriaren edota interes-gatazken susmopeko eragiketen analisiaren laburpena, hartutako erabakiak eta, hala badagokio, Agintaritza Publiko eskudunari egindako komunikazioak.

- Orden del día.
- Hechos destacables en el Plan de Medidas Antifraude.
- Decisiones tomadas con respecto al mismo, en su caso.
- Resultado del seguimiento de los expedientes de contratación y subvenciones correspondientes al MRR que se hallen en tramitación.
- Cuando corresponda, resumen del análisis de operaciones sospechosas de fraude, corrupción y la existencia de conflictos de intereses, así como las decisiones tomadas y, en su caso, las comunicaciones realizadas a la Autoridad Pública competente.

## 6.- Konfidentzialtasun-bermea

Nolanahi ere, Iruzurraren Aurkako Batzordearen bileretara joaten diren pertsonek sekretupean gordeko dituzte Batzordearen erabakiak, eta ez dute helaraziko beren karguan dihardutela eskuratzen duten informazio, datu eta txostenik, ez eta norberaren edo hirugarrenen mesederako erabiliko ere. Betebehar horiek beren eginkizunak betetzeari uzten diotenean ere iraungo dute.

## 6.- Garantía de confidencialidad

En todo caso, las personas asistentes a las reuniones del Comité Antifraude guardarán secreto de los acuerdos de esta Comisión y se abstendrán de revelar informaciones, datos e informes a los que tengan acceso en el ejercicio de su cargo, así como de utilizarlos en beneficio propio o de terceras personas. Tales obligaciones subsistirán aun cuando hayan dejado de ejercer sus funciones.

## 7.- Laguntzeko betebeharra

Pasaiako Udala osatzen duten organo eta erakunde guztiek, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen mugekin, batzordearekin lankidetzan aritzeko betebeharra dute, agindutako funtzioak bete ahal izateko.

## 7.- Deber de colaboración

Todos los órganos y entidades que integran el Ayuntamiento de Pasaia, con los límites que señale la legislación vigente, tienen un deber de colaboración con el comité en la medida necesaria para que pueda cumplir con las funciones que tiene encomendadas.



EKS | CSV: ESKUf4c1d3a0-8bcb-4e48-b2d1-9b4fceef69e5
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024WBTE0001-Ebazpena/Resolución (PASAIAKO UDALA) |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

PASAIAKO UDALA

**Alberro Bilbao, Teo**
**Alkatea**
**Data:** 2024/05/29 15:04:03